



■ ESKUBALOIA

Probatzeko aukera, gaur

Eskubaloi taldeak astebeteko jardunaldiak antolatu dituzte parte hartu nahi dutenentzat. Gaur alebinentzako teknifikazio saioak antolatu dituzte, 09:30etatik 11:30etara. ||

■ ZINEA

'Fuego', gaur

Ikusleen eguna da gaur, eta Biterin *Fuego* pelikula jarriko dute, 16:30etan, 2,5 euroan. ||

■ ARGAZKILARITZA

Bilera, Nepalerako bidaiari buruz

Argazki bidaia antolatu dute Nepalera martxoaren 28tik apirilaren 12ra. Informazio guztia emateko bilera deitu dute gaur, 18:00etan, Biterin. ||

■ PORTU AUZOA

Xalto pailazoa, bihar

Gabonetan ekitaldiak antolatu dituzte Portu auzoan. Bihar Xalto pailazoa egongo da, 18:00etatik aurrera. ||

■ GAZTETU HERNANI

Batzarra, bihar

Lau hilabetetan bost saio egin ostean, azken batzarra bihar egingo dute, 17:00etan, Biterin. ||

■ ZUMITZA

Lizentziak, bihar

Lizentziak berri edo egiteko aukera izango da bihar eta hilaren 30ean Zumitza tabernan. Ordutegia da: 19:00etatik 20:00etara. Kontu korrante zenbakia berri: 2095 5041 11 1073726274. ||

■ KRONIKA

Rotatiban arazoak, larunbat gauean

Larunbat gauean multikopistarekin izandako arazoak medio, igandean ohiko tirada edo ale kopuruaren erdia kaleratu zen. Kronikak barkamena eskatu nahi die irakurleei sortutako eragozpenengatik. ||

■ GABONAK LUDOTEKA UMEENTZAKO

Ohe elastikoak, jokoak, eskulanak... gaurtik

Kiroldegiko 1go pistan jarri dute Ludoteka, etxeko txikienei zuzenduta; 10:00etatik 13:00etara.

GABONETAKO oporrak hartu zituzten herriko txikienek joan den ostiralean. Opor bereziak izan ohi dira hauek, ospakizun egun asko baitaude tartean. Egun guztiak onak dira ordea, ondo pasatzeko, eta Hernaniko Udalak hori erraztu nahi die. Hala, umeentzako ludoteka antolatu dute hiru egunez: gaur, bihar eta ostiralean.

Kiroldegian, debalde

Ludoteka Kiroldegiko 1go pistan jarri dute, eta sarrera debalde da gerturatzaren diren guztientzat. Bertan jarri dituzte ohe elastikoak, slackline, mahai jokoak, eskulanak, jolas kooperatiboak, eta askoz gehiago. Hiru egunetan, ordutegi bera izango du ludotekak: goizeko 10:00etatik eguerdiko 13:00etara. ||



Haur jolasek beti izaten dute arrakasta txikienen artean. Argazkia, Karabel Egunekoa.

■ GABONAK KONTZERTUA

Abesbatza, txistulari eta saxofoi kontzertua, gaur

Kontzertua Milagrosan eskainiko dute Hernani Musika Eskolako Dakapo abesbatzak, txistulariek eta Hernasax saxofoi taldeak. Iluntzeko 19:00etan izango da.

URTEA bukatu aurretik, Eguberrietako kontzertuak ematen ari dira, han eta hemen, Hernaniko musika taldeak. Gaurkoan hiru haundiren txanda izango da: Hernani Musika Eskolako Dakapo abesbatza, txistulariak eta Hernasax saxofoi taldea. Milagrosan jarri dute hitzordua, iluntzeko 19:00etan.

Urteko garai honetako doinu osatu dute emanaldia:

Eguberrietako abestiez. Euskal *billantzikoak* eta eguberri garaiko doinuak izango dira entzungai. Baita ere, beste herrialdeetako doinuak abestu eta joko dituzte; asko eza-gunak, eta beste batzuk berrixeagoak.

Zazpi atal

Kontzertuak zazpi atal izango ditu esan daiteke. Aurreneko hiruetan, talde bakoitzak

bakarrrik abestu edo joko du. Dakapo abesbatzak lau abesti: *Dona nobis pacem*, *Al tambor*, *Hodie Alleluja!* eta *Olentzero*. Txistulariek bost kanta, Eguberria moldaketaren barruan: *Artzaiak izarren pean*, *Aingeruak kristoren jaiotza iragartzen*, *Behemerako bidean*, *Jaureskuntza* eta *Estalpe aurreko dantza*. Eta Hernasax taldeak, bi: *Medley N°1* eta *Rudolph, the red nose reindeer*.

Ondoren etorriko dira konbinatuen atalak. Hernasax eta Dakapo abesbatzak joko dute: *White Christmas* eta *Oi Behtleem*. Hernasax eta txistulariek: *Gabon eguna*. Txistulariek eta Dakapo abesbatzak: *Hiru errege datoz* eta *Mariaren semea*. Eta bukatzeko, hiru taldeek batera: *Olentzero*.

Pianoan Ainhoa Sudupe eta Ana Martinez ariko dira; eta perkusioan Jon Patxe. ||

Garayar autobusak
Sorgintza auzoa, Hernani (Gipuzkoa)
Tel. 943 55 66 58 Fax. 943 33 12 08
mgarayar@autobusgarayar.es

Zerbitzu diskrezionalak (Eskolarrak)
Autobus zerbitzuak Linea erregularak

Hernani • Donostia
Aiete • Umieta • Andoain

GABON HAJETAN
OPARITU EDERTASUNA
ETA ONGIZATEA
ETORRI GURE TRATAMENDUAK EZAGUTZERA

nibiru
UNIKER EDERTASUNA ZENTROA

AUTOMAKILAJI ERAGINDAKO
MANKURU-PSIKURU
MASAJEK

PIROTA TRATAMENDUA
MIKRODENTZARIA
SPA TRATAMENDUA
POTODIETILAZIOA

Iluntzea, 1
20100 Hernani
Gipuzkoa

T. 943 34 35 60
M. 629 561 536
E. info@nibiruedertatza.com
www.nibiruedertatza.com

DORRONSORO

Okindegia

Drain bi tokitan aurkituko gaituzte:
⇒ *Lizeaga 4an*
Ogi eta bolleteria aukeran.
Ordutegia 07-15-14:00/17:00-21:00

⇒ *Akarragi poligonon*, obradore nagusia, denda eta kafetegia.
Ordutegia: 05:30-13:30/16:00-19:30

☎ TELEFONOAK • TAXIAK: 943 550093 • UDALTZAINGOA: 092 • DYA: 943 464622
• AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
• ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 • JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103
☩ FARMAZIAK • Egunez: Chucla Kardaberaz 48 943 551793 • Gaeuz: Aizpuru Latsunbeberri 11 943 336077

EGURADIA
GAUR
Giro eguzkitsua espero da. Hegoaldeko haizea ibiliko da, eta tenperatura maximoek gora egingo dute. Min.5° / Max.16°

BIHAR
Antzeko segiko du. Eguzkia jaun eta jabe zeruan, eta tenperatura atsegina: Min.4° / Max.14°

PELOTA EUSKAL SELEKZIOA

Euskal Selekzioa eta Mexiko aurrez aurre, Hernanin

Kiroldegiko pelotalekuan jokatu da, igandean, 17:30etan. Euskal Selekzioaren ofizialtasuna sustatzeko bidean antolatu dituzte partiduak.

PELOTAKO Euskal Selekzioak protagonismo berezia izango du Gabonetan. Euskal Pilota Federazioak lau jaialdi antolatu ditu, eta partidu bat jokatu da Hego Euskal Herriko probintzia bakoitzean: Gipuzkoan, Bizkai- an, Araban eta Nafarroan. Helburua da, Euskal Selekzioaren ofizialtasuna jorratzeko bidean, lanean jarraitzea.

Mexiko, Munduko irabazlea
Munduko Pilota Txapelketa bukatu berria da, eta Mexiko

izan da garaile. Hain zuzen, Mexiko, munduko talde onena izango da Euskal Selekzioaren aurkaria, lau partidu hauetan. Euskal Selekzioarekin Hernaniko hainbat kirolari hartuko dute parte: Paul Ojuelek, Amaia Irazustabarrenak eta Ariane Arrietak.

Aurrenekoa, Hernanin
Lehendabiziko jaialdia Gipuzkoan jokatu da, Hernanin hain zuzen. Igandean izango da, Kiroldegian, 17:30etan.

Udalak sarrerak emango ditu
Hernaniko Udalak, ekimena babeste aldera, hainbat sarrera erosi ditu. Batzuk pelotazale txikiengatik izango dira, eta besteak banatu egingo ditu. Bihar eta ostiralean eskuragarri izango dira Kiroldegiko bulegoan, 09:00etatik 13:00etara. Pertsona bakoitzak 2 sarrera hartu ahal izango ditu; eta iritsi ahala joango dira banatzen. Salgai ere izango dira, 10 euroan, Txili, Onddi eta Zintzarrin. ||

UDALA BERDINTASUN SAILA

«Gida egin dugu jostailuak erostean hainbat faktore kontuan izateko»

Jostailua aukeratzekoan egin beharreko hamabost galdera zehaztu dituzte.

BERDINTASUN Sailak, Gabonak direla eta hurrei erosten zaizkien jostailuetan jarri nahi du arreta, Kronikara bidalitako prentsa oharrean. Diote, maiz ez dela behar bezain besteko arreta jartzen, eta aukeraketa garrantzitsua dela haurren garapen egokirako. Hori horrela, gida moduko bat osatu dute, edozein jostailu erosterakoan, kontuan hartu beharrekoa: «kontuan izan behar dira jostailuaren kalitatea, umeen adina, eta batez ere, jostailuek transmititzen dituzten balore eta jarrerak».

Hamabost galderako gida
Kontuan hartu beharreko hamar galdera zehaztu dituzte:
• Neska zein mutilek jolastu dezakete?
• Duen adinerako aproposa da?
• Behin eta berrero jolastu daiteke?
• Lagunekin jolastu dezake?
• Umeak irudimena landuko du?
• Lagunduko dio estereotipo sexistak ez errepikatzen?
• Kultur aniztasuna eta naturarekiko errespetua errazten du?
• Nire seme-alabarekin konpartitu dezaket?

• Berdinen arteko harremana eta komunikazioa bultzatu eta sendotzen du?
• Erabilera bat baino gehiago ditu?
• Jakin mina eta sormena lantzen laguntzen du?
• Telebistan iragartzen badute, nolako iragarkia da?
• Liburu edo ipuina bada, emakume eta gizonen arteko oreka dago?
• Hizkuntza jarduera aldetik, estereotipo ez sexistak daude?
• Pertsonaia protagonistek ez dituzte rol klasikoak erreproduzitzen?». ||

SANTO TOMAS



Etxeberrin auzotar asko elkartu ziren, txistor jatearen bueltan.

Santo Tomas, geroz eta gehiago ospatzen den jaia
Txistor usaina zabaldu da herri azken egunetan. Ikastetxeetan hasi ziren ziren ostiralean; larunbatean San Joan Konpartsak jarri zuen postua; eta atzo, elkarte eta auzoetan ospatu zen. Geroz eta jarraitzaile gehiago ditu Santo Tomas egunak Hernanin, eta beste urtebetez, nahi adina txistor jateko aukera izan da herrian bertan. ||

UDALA GABONAK

Hondakin bilketan aldaketak, hiru egunetan

Abenduaren 24, 26 eta 31n dira aldaketak.

UDALAK jakinarazi duenez, hondakin bilketan aldaketak izango dira Gabonetan. Kronikara bidalitako oharrean zehaztu dute, hiru egunetan izango direla aldaketak: abenduaren 24, 26 eta 31n.

Abenduaren 24an bilketa ordubete aurreratuko da; beraz, 22:00ak baino lehen utzi behar da organikoa.

Abenduaren 26an paperkarti bilketa berezia egingo da, goizez. Hortaz, 14:00ak baino lehen utzi beharko da. Gaueko organikoa berdin-berdin jasoko da.

Azkenik, abenduaren 31n ordubete aurreratuko da bilketa. Beraz, 22:00ak baino lehen utzi beharko da organikoa. ||

MENDIRIZ MENDI

Estibalitz Santutegia-Pariza ibilbidea egiteko, izen ematea

Arraina eta ardoaren bideko 6garren etapa antolatu du Mendiriz Mendik helduentzako, abenduaren 28an. Estibalitz Santutegitik abiatu, eta Parizara joango dira. 11 euro balio du bazkideentzat; eta 14 euro ez direnentzat. Izena eman liteke gaur, ostegunean edo ostiralean, 20:00etatik 21:00etara, bulegoan. ||

GURE ESKU DAGO

Ametsen kriseiluak botako dituzte Hernani eta Ereñotzun

Gure Esku Dagok ekimen berria antolatu du abenduaren 31rako. Ametsen kriseiluak jarri dituzte salgai Andre Kale 41ean, 2 euroan. Helburua da herritarrek erosi eta lagun, familia, ezagunei... oparitzea; bakoitzak bere desioa idatzi eta abenduaren 31n, guztiek elkarrekin botatzea. 18:30etan egin dute horretarako zita, Zinkoenean. Ereñotzun ere egingo dute, ordu berean. Parte hartu nahi dutenek lrintzi tabernan eman behar dute izena. Animatzeko deia egin diete, batzuei eta besteei. ||

FUTBOLA

Hernanik ezin, Anaitasunaren kontra

Nahi baino ezin. Anaitasunaren kontra jokatu zuen Hernanik, eta azkoitiarrak izan ziren nagusi, 2-1. ||

ERRUGBIA

Gaztedi jaun eta jabe, senior B mailan

Nagusiek jai, eta Senior B taldeak jokatu zuen partidua asteburuan, besteak beste. Gaztediren kontra aritu ziren, eta 46-0 galdu zuten. ||

WATERPOLOA

Sestao nagusi, gutxigatik

Waterpoloan etxean jokatu zuen Hernanik Sestaoren kontra. Partidua berdindua joan zen, baina bizkaitarrak izan ziren nagusi, tanto bakarrek aldearekin: 10-11. ||

IRAGARKI MERKEAK

Alokatzeko 3 gelako etxebizitza beharra daukagu. Deitu: 618 120 340

Baratzen ibiltzeko rotatora behar dut. Bigarren eskukoa erosiko nuke. Deitu: 688 665 045

Sukaldaria behar dugu jatetxe batean, esperientziarekin. Urtarrilean hasteko.

Deitu: 600 668 957

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Inigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, aurikuloterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)